

Bilaketan «esfortzu handia» egin arren, 'Marero' itsasontziaren arrastorik gabe segitzen dute

Atzo azken orduan flotagailu bat aurkitu zuten, baina ezin izan zuten argitu Pasaiaiko ontziarena den

Asteburuan Arcachonen parean desagertu zen Marero Pasaiaiko arrantzoniaren arrastorik gabe amaitu zuten atzoko bilaketa lanek. Frantziako Itsas Salbamendua koordinatzen ari den lana areagotu egin zen atzo, baina eguneko berritasun bakarra azken orduan iritsi zen: flotadore bat atzeman zuten, baina segituan ilundu zen eta ezin izan zuten zehaztu Pasaiaiko ontziarena zen.

Itziarroman / Pasaia

GOIZEKO lehen argiarekin batera ekin zioten atzo Marero arrantzoniaren eta barruan zeramatzan zortzi arrantzaleen bila, Frantziako Itsas Salbamenduak koordinaturik.

Guztira hiru hegazkin (bi frantsesak eta bat espainiarra), bi helikoptero (bat frantsesa eta bestea Ertzaintzarena), altura handiko bi atoi-ontzi, eta lau salbamendu txalupa (bi Frantziako itsas salbamendukoak eta bi partikularrak). Herenegun Bizkaiko Golkoko 4000 kilometro kuadro arakatu zituzten, eta atzo bilaketa gunea zabaldu egin zuten. Guztira, 9000 kilometro kuadro arakatu zituzten, ikusgarritasun oso oneko eguraldia lagun.

«Oso esfortzu handia» egin arren, «emaitza ezkorra» lortu zutela adierazi zuen Jaime Tejedor Pasaiaiko Kofradiako lehen-dakariak atzo bilaketa lanaren balorazioa egiterakoan.

Atzo azken orduan, Mareroren egoeraren berri argitzen lagun dezakeen gertaera bat izan zen: Salbamenduek flotadore bat atzeman zuten bilaketa egiten ari ziren gunean. Alabaina, Frantziako Itsas Salbamenduak laster iragarri zuen egunotan ferry batek 15 flotadore galdu dituela, eta, beraz, hark galdutako bat izan daitekeela. Gainera, ilunabarra zenez, ezin izan zioten arrasto horri jarraitu.

Orduak aurrera joan ahala esperantza gero eta txikiagoa



dela azaldu zuen Tejedorrek; alabaina, ziurtatu zuen senideek oraindik itxaropenari eusten diotela, «ez baitago ezer adierazten duena istripu bat izan dela».

Kritika gogorrak eguraldi prebisioengatik • Asteburuan jaso zituzten eguraldi aurreikuspe-

netan «mundu guztia erratu» zela adierazi zuen Tejedorrek, iragarritakoaren erdian gutxienez. «Itsas Salbamendutik eta SOS Deiaketik jaso genituen prebisioek zioten eguraldi txarra egingo zuela, baina ez egin duena beste, eta horren froga da ontziak ez direla lurrera itzuli». Tejedorrek go-

goratu zuen hiru eta lau metro bitarteko olatuak iragarri zizutela, baina inolaz ere izan direnak beste: 14 metro bitartekoak. Itsasoa izan diren arrantzale batzuen testigantzak «belduragarriak» direla ziurtatu zuen, eta, Frantziako prebisioek ere kale egin zutela gogoratu zuen.

Goian, Mareroko arrantzaleen senide eta lagunak, Kofradiako balkoian. Ezkerrean Jaime Tejedor, egoeraren berri ematen. EDURNE KOCH

Retegi eta Sudupe izan ziren senideekin

JAVIER RETEGI Jaurilaritzako Arrantza sailburua eta Roman Sudupe Gipuzkoako ahaldu nagusia Pasaiaiko Kofradian izan ziren atzo, senideei elkartasuna adierazi eta bilaketa nola doan jakiteko. Retegik azaldu zuenez, gertatutakoa «itsas kolpe baten ondorioa» izan zitekeen. Izan ere, asteburuan *Biyok* arrantzontzia hondoratu egin zen, eta *Gure Lanak* kalte larriak izan zituen. Hala ere, segurtasun aldetik flotaren egoera «ona» dela ziurtatu zuen sailburuak.

Bestalde, kexu agertu zen prebisioek ez zuelako iragarri zetoarren ekaitza gertatu zena bezain bortitza zenik. X



Eros ezazu
urtebetean
interesik gabe
J. Bengoa

Bulebarreko arkupeak, 20
Mamut musika zentroa



ASTEASUKO UDALA IRAGARKIA

Udal Alkate-Lehendakari jaunak 1998ko abenduaren 23an igorritako ebazpenaren bidez herriko planeamenduko Arau Subsidiarioetako S-4 Sektorari dagokion, Ikaur S.L.-k idatzi duten Birpartzelatze Proiektuari hasierako onespina eman dio.

Onespina ondoren adierazten den zehaztapenarekin egin da:

«Izanik derrigorrez zeditu beharreko hirigintz probetxamendu medioari dagokion E.A.E.ko legeria tenporalki suspentsion dagoenez eta Konstituzio Epaimaiharen behin-betiko onespina emateko garaian, egokitzen den legeria aplikatuko da.»

Jendaurrean jartzen da izapidatu den espediente, hamabost eguneko epean, iragarkia Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den biharamunetik hasita, interesatuek aztertu eta egoki dituzten alegazioak aurkez ditzaten.

Asteasun, 1998ko abenduaren 23an.
ALKATEAK



Asteasuko Udala IRAGARKIA

Udal Alkate-Lehendakari jaunak 1998ko abenduaren 23an igorritako ebazpenaren bidez planeamenduko Arau Subsidiarioetako S-4 Sektorari dagokion, Ikaur, S.L.-k idatzi duen Urbanizazio Proiektuari hasierako onespina eman dio.

Jendaurrean jartzen da izapidatu den espediente, hamabost eguneko epean, iragarkia Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den biharamunetik hasita, interesatuek aztertu eta egoki dituzten alegazioak aurkez ditzaten.

Asteasun, 1998ko abenduaren 23an.
ALKATEAK